

Plaza > Kultura

Ramon Saizarbitoria ◊ Idazlea

Oraindik noiz kaleratuko duen ez dakien nobela errebasatzen ari da Ramon Saizarbitoria, astiro, merkatuak ezarritako presiorik eta presarik gabe idazteak ematen duen askatasunaz gozatuz.

«Balio nagusia galtzen ari gara: askatasunez idaztearena»

Juan Luis Zabala Donostia

Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944) ez da eroso sentitzen elkarriketak ematen. Betiko kontuak errepikatu eta astun gertatzeko beldur da, adierazi beharrekoa behar bezala ez adierazten beldur, bere hitzak gaizki interpretatuko diren beldur... Baina behin elkarriketaren dinamikan sartuz gero, beldur denak gaintuta egiten du aurrera.

Ene Jesus!-en ondotik, ia 20 urte egon zinen nobelarik argitaratu gabe. Orain ere denbora asko da azken liburua plazaratu zenuenetik (Kandinskyren tradizioa, 2003an). Nobela bat idazten ari naiz, eta aurten amaituko dudala uste dut. Urte asko dira ezer argitaratu gabe, egia da; baina nobela bat idazteko denbora minimo bat behar da. Lau urte behar dira gutxienez, nire ustez. Nik zortzi behar ditudala? Ados. Ni mantsoa naiz. Baina idazle batzuk ez al dira askotan azkarregiak?

Asko falta zaizu amaitzeko?

Lehen idazketa amaitua dut, eta bigarren bueltan nabil orain. Milioi eta erdi karakterreko nobela da. Orain, bigarren bueltan, errebasatu ahala testua laburtzen saiatzen ari naiz, kentzea. Baina ez dut lortzen kentzea. Epe jakin batean argitaratzeko interesik ez dudanez, eta lorpen finko bat bilatzen ez dudanez, nobela horretan lanean jarraitzen dut, eta barruan daukadan guztia nobelara isurtzen. Ez dakit zer neurritan den ona hori. Seguru asko txarra da. Ez nuke hori egin behar, baina uste dut ni bezalako idazle batek abantaila hori duela. Alegia, nahi duena egiteko aukera. Azken ba-

tean, egiten ari naizen hori da nik beti defenditu dudana. Literatura txikietan, behin adin batera iritsita, idazleak bere buruari askatasun hori emateko aukera dauka.

Zer berezitasun dute literatura txikiak askatasun hori emateko?

Literatura txiki bateko idazleak ez dauka merkatuarekiko erantzukizunik. Guri apustu hori dago. Horrela sortuko dira, sortzekotan, lan bitxiak, balioen bat izango dutenak edo mereziko dutenak. Gu normalizatzen baldin bagara, zentzu estatistikoan, besteen ohituretara parekatzen baldin bagara, ez dugu ezer lortuko. Kultura txikiok zerbait lortzen baldin badugu, justifikatzen baldin bagara, horregatik da hain zuzen ere, merkatutik aparte lan egiteak ematen dituen abantaila

«Handitzen ari gara, eta horrek beldurra ematen dit. Jolaserako ezina dakar hazteak»

«Normalizatu eta besteen ohituretara parekatzen bagara, ez dugu ezer lortuko»

«Indikadore batzuen arabera, dena ondo doa. Baina ez daude ondo»

esker. Behin eta berriz esan dut hau, obsesio bilakatua zait, baina uste dut ez dela ondo ulertzen. Eta, gainera, ez dakit nik esan beharrekoa den hori.

Baina merkatuak gero eta eragin handiagoa du euskal literaturan.

Bai. Eta badirudi indikadore batzuen arabera dena oso ondo doakigula: Espainiako Sari Nazionalak bata bestearen ondoren, kristoren arrakasta... Baina uste dut indikadore horiek ez dutela balio. Orain dela 30 urtekoarekin konparatuta, ikaragarri ondo dago euskal literatura, besterik ez bada ere hizkuntzaren eta idazketaren aldetik. Horretan ez da dudarik. Baina uste dut oro har ez doala bide onetik. Errazkeriara jotzen ari da, eta masentzako literaturara jotzerakoan, edo *best seller*-en ildotik, gurea barregarri gera liteke. Ez dakit oso egokia den une honetan nik hau esatea, oso saritua ez den idazle batek... Esango dute inbidiak jota gabiltzala...

Esan egin duzu hala ere.

Arriskutsua iruditzen baitzait gertatzen ari zaiguna. Insatisfazioak azaltzeak erreta dagoenaren itxura ematen du. Baina uste dut gure balio nagusia galtzen ari garela: merkatutik aparte askatasunez eta erantzukizun zehatzik gabe idaztearena, disfrutaztea helburu. Hortik emango genuke, ematekotan, zerbait.

Eguno euskal idazleak merkatuaren eskakizunetara makurtuegiak ikusten dituzu, beraz, oro har?

Ni ikusten ari naizenez, gero eta zabalduago dago gauza arinak eta errazak idazteko joera, aparteko anbizioarik gabe. Idazle batzuek —gero eta gehiagok— irakurleak bilatzen dituzte, eta irakurle kopuru zabal batentzat idazten dute. Baina beste batzuk beste zerbait lortzen saiatzen dira, istorioak kontatzeaz aparteko zerbait egiteko anbizioa dute. Ni bando horretakoa naiz. Bando



40 Joseba Sarrionandiaren ipuingintza izan du hizpide Xabier Mendiguren Elizegik Durangon

42 Ted Hughesen 'Gaudete' poema epiko luzea berrargitaratu du Lumen argitaletxeak

horretan dago Joan Mari Irigoien ere; idazteko moldean nire antipodetan dago, alde guztietatik, baina nire errespetu osoa du. Joxean Agirre da beste kasu bat; ondo tratatu dute kritikariek, baina gehiago merezi du. Pello Lizarralde, Harkaitz Canok eta beste batzuek ere bai, jakina... Huts egiten dugunean, gure bandokoak barregarri geratzeko arriskua dugu, eta hori onartu behar dugu. Beste bandokoek, anbizio handirik gabe idazten dutenez, huts eginda ere ez dira hain nabarmen gelditzen.

Erosoagoa da, hortaz, anbiziorik gabekoen bandokoa izatea.

Gaur egun, Euskal Herrian, anbizioz edo anbiziorik gabe idatzi, liburua idazleari ematen dion oihartzuna antzekoa da. Eta diruaren aldetik anbiziorik gabeko liburuek ekarpen handiagoa egiten diote egileari, *Kandinskyren tradizioa*-rekin 'beste bandora' pasatu nintzenean egiaztatu ahal izan nuen. Salmentei begiratu, nik *Kandinskyren tradizioa*-rekin askoz gehiago irabazi dut *Hamaika pauso*-rekin baino. Orriko eta orduko, halako mila edo bi mila edo bost mila. Ez ditut kontuak egin.

Dena den, merkatuan indarra izateko eta merkatua zabaltzeko aukera izanez gero, euskal literaturak nekez egin ahal izango dio uko horri, ezta?

Halaxe da. Euskararekin eta euskal kulturarekin horretara iristea beste erremediorik ere ez daukagu. Adibidez, itzulpena: ikusten dut ezinbestekoa dela eta ona dela. Baina, era berean, horrek dakarzikigun kalteak ere ikaragarriak dira. Nik bai baitakit idazterakoan idazle batzuk pentsatzen aritzen direla idazten ari diren esaldi horrek erdaraz zer itxura izango duen. Hori oso kaltegarria da guretzat. Lehentasuna ematen zaio kanpoan azaltzeari. Eta gaztelania nagusitzen ari zaigu zentzu horretan. Badakigu maila jakin batera iritsi den idazleak, erdi-profesionala denak edo, espero duela bere obra gutxienez gaztelaniara itzuliko dela, argitalpen apal batean besterik ez bada ere. Eta inolako aitortzarik etortzekotan, hortik etorriko zaiola, erdarazko bertsioetik. Ezinbestekoa dela, beraz, erdaratik pasatzea. Ondorioz, orain kanporako idazten da neurri handi batean.

Zu idazten hasi zinen garaian ez zegoen horrekin amesterik.

Ez genuen inondik espero hori etor zitekeenik ere. Eta etorri da, eta ongietorria izan bedi. Baina hori haztearen antzekoa da: kalteak eta ezintasunak dakartza jolaserako. Handitzen ari gara, eta horrek beldurra ematen dit.

Zure liburua ere itzulita daude, eta harrera kritikoa izan dute.

Baina nik argi daukat nire liburuek ezin dutela arrakasta handirik lortu. Horrekin ez dut esan nahi onak direla. Literaturak

gauza asko hartzen ditu bere barruan. Era askotakoa izan daiteke. Idazle batzuek istorioak kontatu nahi dituzte, eta irakurle batzuek istorioak irakurri nahi dituzte. Niri literatura hori ez zait interesatzen, ez irakurtzeko eta ez idazteko. Niri beste literatura bat interesatzen zait. Interesatzen zaidan literatura horretan ere zaindu behar dira baliabide li-

«Gero eta zabaldugo dago gauza arinak eta errazak idazteko joera, anbiziorik gabe»

«Idazle batek ez du idazten 'hemengo roiloa'-z konpromisoz»

«Unamunok freno gisa ikusten zuen euskara. Nire kasuan, uste dut bultzada izan dela»

terario batzuk, kontaketa teknika batzuk erabili. Baina ez hori bakarrik.

Zer gehiago?

Orain idazten ari naizen nobela dela eta, galdetu didate: 'zer?, hemengo roiloa-z al da hau ere?' Baina, nola saihestu *hemengo roiloa*? Idazle batek ez du idazten *hemengo roiloa*-z konpromisoz, ezinbestekoa zaiolako baizik. Ea nor den horretaz pentsatzen ez duen txoropitua. Nik behintzat, zoritxarrez, kraka hori guztia gainean

daukat, eta matraka horretan segitu behar dut. Nahiz eta jakin Madrilen matraka horrek ez duela saltzen, eta Madrilen saltzeko era arin eta simple batean idatzi behar dela.

«Kraka hori» alpatu duzu... Baina alde onik ere sumatzen diozu kultura txiki bateko kide izateari... Aberriaren alde (eta kontra) liburuan, adibidez, diozu harro sentitzen zarela Augustin Zubikarai, Martin Itziar eta gisakoek lankide izateaz.

Bai, hala da. Badirudi kultura bakoitzak, unibertso gisa, bere *zeratxoak* sortzen dituela: bere plaza txoa, bere elizaxoa, bere parlamentutxo, bere parnasotxo... Beharbada Gaztelako kasino horietan ere sortzen dira unibertso txo horiek, baina ez dute transzendentitzen. Kulturaren zentrotik mirespen gutxi izan ohi da kasinoko unibertso horientzat, oso kritikatuak eta gutxietsiak dira. Gu kasinokoak ginateteke, baina hizkuntza propio batekin eta unibertso propio batekin; eta horri esker kasinoren mugak gainditu egiten ditugu. Nik badut irakurle bat Bilbon, eta beharbada beste bat Gasteizen. Materialki, Toledon eta horrelako lekuetan ere egongo dira Zubikarai bezalakoak. Baina kasinokoak dira, ez daukate unibertsoak. Guk unibertso bat dugu, eta horregatik orain Zubikarairi buruz hizketan ari gara, hura hil zenetik urte batzuk pasatu diren arren. Zubikarai bazuelako nazio zentzu hori, ikuspegi osatu bat, kasinoa gainditzeko laguntzen duena. Kontu

honen harira, txistua etortzen zait burura.

Txistua? Zergatik?

Gure tradizioak txistua jotzeko sortzen dituen gogo edo nahi horiek musikarako bokazioa sortzen dute, ala txistua jotzen duenak pianoa joko luke txistu ezagutu ez balu? Bidea moztu egiten du, entretenitu egiten du, ala alderantziz, txisturik eta folklorismorik ez balego ez legoke musika zaletasunik? Zer da txistua, zer da euskara: pausoa ala freno? Unamunok freno moduan ikusten zuen euskara, argi dago. Hark esaten zuen euskaldunok euskara galdutakoan sekulako indarra hartuko genuela, euskara freno zelako guretzat. Nik uste dut nire kasuan bultzada izan dela.

Beti kezkatu izan zaitu Euskal Herriaren egoera politikoak. Aldaketa garaia denez, zergatik?

Oso argi daukat berandu dela. Hori esatea oso gaizki hartua izan daiteke, lepora diezadaketelako ea ez zaidan axola jendeak bizkarzainak ondoan dituela bizi behar izatea. Gertatu ez denez, ezin jakin nola erreakzionatuko dudana, eta akaso saltoka hasiko naiz; baina ETak esaten badu armak uzten dituela, uste dut ez dudala ospatuko. Orain dela bi urte izan baltiz, edo orain dela hiru urte... zer ondo! Baina... zer pena! Zergatik orain, hain berandu? Esango nieke: «Zer irabazi duzue, edo zergatik luzatu duzue? Zuek uste duzue zerbait lortu duzuela?» Ez dit inork esaten hori, eta hain argi dago beste denontzat!

«Jon Juaristik esan zuen behin nazionalisten historiak kontatu behar genituela, eta ados nago»

J.L.Z. Donostia

Bi istorio batzen ditu Saizarbitoria idazten ari den nobela berriak: batean emakume itzultzaile bat agertzen da, gizonezko idazle batekin bizi dena. Bestean, emakume mediku batekin ezkontuta dagoen gizonezko mediku adindu batek amodio istorioa du estatubatuar neska gazte batekin. Bi istorioak gurutzatu egiten dira, medikuarekin amodio istorioa duen neska hori itzultzailea eta idazlea bizi diren etxean bizi baita, goiko pisuan.

«Hemengo jendearen kontrapuntua egiten du AEBetako neska gazteak», Saizarbitoria dioenez. «Hari errazago azaltzen dizkiote bertako bati azalduko ez lizkioketen gauzak. Bai medikuak eta bai itzultzaileak nork bere historia dute, hemengo ge-

rrarekin lotua, eta nork bere zauriak harreman pertsonaletan. Historia horietaz bakoitzak egiten dituen hausnarketak kontatzen ditu nobelak».

«Nobela berrian nazionalisten historiak kontatuko ditub», iragarri du Saizarbitoria. Barruan sentitzen duen premia baten ondorio da hori. «Jon Juaristik esan zuen behin nazionalisten historiak kontatu behar genituela, eta ni ados nago. Gurea esplikatzeke, historiak kontatu behar dira. Nobela azaltzen da karlistaren bat ere, baina ez naiz saiatu nazionalistak eta haien kontrapuntuak erakusten, onak eta gaiztoak... Gehienak nazionalistak dira, hemengo jendea eta orain artean gure gizartearen eruduzat har zitekeena: gipuzkoar, euskaldun, abertzale edo abertzale modukoa. Historia horrekin lanak dituen

jendea da, indarkeriarekin ere esperientziak izandakoa, kontu horietaz pentsatzen eta hitz egiten duena».

Pertsonaia horien bizitza afektiboak ere garrantzia du. «Nire betiko gaiak eta kezka agertzen dira: emakumeak zer nahi du? Zer eskatzen du? Posible al da hori ematea? Nola esan? Nola esan behar da?».

Liburuari «bigarren buelta» ematen ari zaio orain, 20. kapitulu gertu. 24 kapitulu dauzka guztira, eta astero kapitulu bat erreparatzen du gutxi gorabehera. Gero «hirugarren buelta» egin beharko du, eta dena amaitu baino lehen itzultzaile batekin eta ginekologo batekin kontsultatu nahi ditu kontu batzuk, ahalik eta zehaztasun handienaren bila. Beraz, udazkena arte nekez amaituko du.